



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 17a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00008. Foru Lege proiektua, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubiak bermatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00008. Foru Lege proiektua, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2022ko irailaren 9ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

3. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Definizioak.

Letra berri bat (u) gehituko litzateke:

“Zahartze aktiboa: ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala bizitza guztian zehar izateko aukerak ahalik eta gehiena aprobetxatzeko prozesua da, helburu duena bizi-kalitatea, produktibitatea eta bizi-itxaropena adin zaharrera hedatzea desgaitasun-prebalentzia minimoarekin”.

Zioak: Zahartze aktiboaren definizioa gehitzea.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 2. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Era berean, Nafarroako Administrazio Publikoek arreta berezia emanen diete diskriminazio anizkoitza eta diskriminazio interseksionala jasateko arrisku gehiago duten pertsona edo taldeei,

hala nola desgaitasuna duten haurrei eta emakumei, desgaitasuna duten adinekoei, desgaitasuna izan eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumei, desgaitasuna duten LGTBI+ pertsonen, askotariko desgaitasuna dutenei eta gatazka armatuen biktima izanik desgaitasuna dutenei edo gutxiengo etnikoetako kide edo migratzaile izanik desgaitasuna dutenei”.

Zioak: Testua zuzentzea, ez dezan gaizki-uler turik eragin eta argi gera dadin diskriminazio anizkoitza jasan dezaketela gutxiengo etnikoetakoak edo migratzaileak izanik desgaitasuna duten pertsonen.

3. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, 6. artikuluan, “Diskriminazioaren aurkako neurriak” izenekoan, laugarren paragrafoa aldatzekoa. Horren testua honela geldituko litzateke:

“Erabakitzearen ea foru lege honen 3.n) artikuluan ezarritakoaren arabera egokitzapen bat beharrezkoa den eta, beraz, diskriminazioa ekiditeko nahitaezkoa, kontuan hartuko dira neurriaren kostuak, hura ez hartzeak desgaitasuna dutenei ekartzen dizkien diskriminazio-ondorioak, hura praktikan jarri behar duen pertsona, entitate edo erakundearen egitura eta ezaugarriak, eta finantzaketa ofiziala edo beste edozein laguntza eskuratzeko zer modu duen”.

Zioak: Testua aldatzen da zehaztasuna hobetzeko; egokitzapen bat arrazoizkotzat jotzeak interpretazio oso subjektiboa eskatzen du.

4. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikuluko 1. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Paragrafo horrek hurrengo testua izanen du:

“Nafarroako administrazio publikoek ekintza positiborako neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen alde. Era berean, neurri gehigarriak ezarriko dira kolektibo zaurgarriagoei zuzenduak, arriskua dutelako diskriminazio handiagoa jasateko –diskriminazio anizkoitza eta diskriminazio interseksionala barne– edo aukera-berdintasun urriagoa izateko. Horien artean daude, besteak beste, desgaitasuna duten emakumeak –berezi genero-indarkeriaren biktima badira–, desgaitasuna duten LGTBI+ pertsonak, desgaitasuna duten haurrak, desgaitasun motaren bat duten zaharrak, beren autonomiaz baliatzeko edo erabakiak libreki hartzeko laguntza handiagoa behar dutenak, askotariko desgaitasuna dutenak eta desgaitasuna izan eta bazterketa soziala pairatzen dutenak, bai eta desgaitasunen bat izanik landagunean bizi ohi diren pertsonak eta gatazka armatuen biktima edo gutxiengo etnikoetako kide edo migratzaile izanik desgaitasuna duten pertsonak”.

Zioak: Testua zuzentzea, ez dezan gaizki-uler turik eragin eta argi gera dadin diskriminazio anizkoitza jasan dezaketela gutxiengo etnikoetako edo migratzaileak izanik desgaitasuna duten pertsonak.

5. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

8. artikuluko B apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“b) une oro errespetatu daitezkeen horien osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak, gainerako emakumeen baldintza berberetan”.

Zioak: Ez dirudi egokia denik sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko paragrafo batean neskatoak aipatzea, kontuan izanik, gainera, hurrengo artikulua berariaz dagoela eskainia desgaitasuna duten haurrei.

6. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10 bis) artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua: “10. bis artikulua. Profesionalen prestakuntza”.

“Foru Komunitateko administrazioak bere langileei prestakuntza emateko planak bermatuko ditu, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta administrazioaren jardura-sektore desberdinetatik haiei laguntza emateari buruzkoak”.

Zioak: Desgaitasuna duten pertsonen arreta egokia emateko, beharrezkoa da administrazio profesionalen prestakuntza izan dezaten bermatzea alor guztietan.

7. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, arreta goiztiarrari buruzko 11. artikuluko lehen puntua aldatzeko. Horren testua honela idatzita geratuko litzateke:

“1 Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen esparruan, bermatuko dute arreta goiztiarra ematen zaiela, familiekin koordinatuta, 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei, baldin eta behar iraunkorrek edo iragankorrek badituzte garapenerako alterazio edo nahasmenduen ondorioz edo faktore biologiko edo psikosozialak direla-eta arrisku handiko egoeran badaude, bat etorri haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko araudian eta erregelamenduzko garapen-xedapenetan aurreikusitako baldintzekin eta printzipioekin”

Zioak: Garrantzitsua da familiekin koordinazio on bat lortzearen beharra aipatzea, arreta goiztiarra askoz ere eraginkorragoa egin ahal izateko.

8. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Arreta goiztiarrari buruzko 11. artikuluari hirugarren puntu berri bat gehitzeko zuzenketa. Horren testua honela idatzita geratuko litzateke:

“3 Administrazioek beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak urtero jartzeko konpromisoa hartzen dute, haur guztien arreta goiztiarra bermatzeko”.

Zioak: Administrazioek, eta kasu honetan Nafarroako Gobernuak, programa horien bermatzaile izan behar dute, eta horretarako ezinbestekoa da une bakoitzean beharrezkoa den aurrekontu-konpromisoa jaso dadila.

9. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Arreta goiztiarrari buruzko 11. artikuluari laugarren puntu berri bat gehitzeko zuzenketa. Horren testua honela idatzita geratuko litzateke:

“4 Administrazioek konpromisoa hartzen dute terapeuta okupazionalaren figura hedatzen joateko, halako moldez non ikastetxe guztiek modua izan dezaten figura profesional hori erabiltzeko, horren beharra dagoenean”.

10. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Desgaitasunaren balorazioari buruzko 12. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko litzateke testua:

“2 Irakurmen-zailtasunak dituzten pertsonen desgaitasuna aitortzeko ebazpenak halaber jaulkiko dira irakurketa errazeko formatuan eta beste formatu batzuetan, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, pertsonaren edo haren familiaren beharrezkoaren arabera”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikulua bigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2 Irakurmen-zailtasunak dituzten pertsonen desgaitasuna aitortzeko ebazpenak halaber jaulkiko dira irakurketa errazeko formatuan eta beste formatu batzuetan, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, pertsonaren edo haren familiaren beharrezkoaren arabera”.

Zioak: Erabateko irisgarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da pertsona eta/edo familia bakoitzarentzat behar den formatua bermatzea. Proiek-

tuaren testuak ez du hori bermatzen, eta horregatik testu hau egokiagoa da helburu hori lortzeko.

12. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zahartze aktibo eta goiztiarrari buruzko 14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Nafarroako Gobernuak programak zabalagotzeko eta programa berriak sortzeko konpromisoa hartzen du zahartze aktiboaren estrategiaren esparruan eta Osasun Planak ezartzen dituen beste estrategia batzuetan, aintzat hartuta desgaitasun mota desberdinen arabera berezitasunak, eta barnean sartuta helburu terapeutikoa duen jarduera edo ariketa fisikoa eta errehabilitazio funtzional eta kognitiboa, taldeko fisioterapia, ernetasun berezia makaltasunaren eta erorikoen prebentziorako, antzemate goiztiarrerako eta arretarako, eta tratu txarreko egoerak detektatzeko jarraibideak biltzen dituzten protokoloak”.

Zioak: Zahartze aktiboko strategiaren garapen eskasak argi uzten du egiten ari den lana urria dela eta gaur egun ahalmen txikia dagoela estrategian ezarritako helburuak betetzeko. Ezinbestekoa da asmo horrekin baliabideak eta programak gehitzea.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

15. artikulua 4. puntua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4 Desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatze aldera, autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak ezarriko dira, bai eta pertsona bakoitzaren premiei eta bizimoduari eta berrikuntza teknologikoei egokituriko produktu lagungarriak erosi eta berritzeko dirulaguntzak eta prestazioak ere, eta produktu lagungarrien zentro bat antolatuko da, irisgarritasunaren arloan erreferente gisa jarduteko eta aholkularitzarako, orientaziorako eta mailegu-sistema bezalako beste laguntza-neurri batzuetarako”.

Zioak: Hasiera batean ezarritakoa hobetzen du.

14. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, 4. puntua aldatzekoa 15. artikuluan, autonomia pertsonala eta bizimodu independentea bermatzeko neurriei buruzkoan. Honela geldituko litzateke testua:

“4 Desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatze aldera, autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak ezarriko dira, bai eta pertsona bakoitzaren premiei eta bizimoduari eta berrikuntza teknologikoei egokituriko produktu lagungarriak erosi eta berritzeko dirulaguntzak eta prestazioak ere, eta produktu lagungarrien zentro bat antolatuko da, irisgarritasunaren arloan erreferente gisa jarduteko eta aholkularitzarako, orientaziorako eta mailegu-sistema bezalako beste laguntza-neurri batzuetarako. Aholkularitza eta orientazioa profesionalen bitartez eginen dira, eta terapeuta okupazionalaren figura ere edukiko da”.

Zioak: Administrazioetatik autonomia pertsonala eta bizitza independentea bultzatu behar ditugu, eta horretarako zerbitzu eta prestazio berriak ezarri behar ditugu. Beharrezkoa da, halaber, orientazio-zerbitzua ematearen garrantzia adieraztea.

15. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

15. artikulua laugarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“4 Desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatze aldera, autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak ezarriko dira, bai eta pertsona bakoitzaren premiei eta bizimoduari eta berrikuntza teknologikoei egokituriko produktu lagungarriak erosi eta berritzeko dirulaguntzak eta prestazioak ere, eta produktu lagungarrien zentro bat antolatuko da, irisgarritasunaren arloan erreferente gisa jarduteko eta aholkularitzarako, orientaziorako eta mailegu-sistema bezalako beste laguntza-neurri batzuetarako”.

Zioak: Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuak funtsezko prestazioa dira desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizitza independentea hobetzeko; hori dela-eta, esanbidez aipatuak behar dute egon, mendekotasunaren prebentziorako ez ezik, baita autonomia hori bermatzeko ere.

16. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, 2. bis puntu berri bat gehitzekoa 15. artikuluari, autonomia pertsonala eta bizimodu independentea bermatzeko neurriei buruzkoari. Horren testua honela idatzita geratuko litzateke:

“2. bis. Bizitza independenterako eskubidea sustatze aldera, zerbitzuak eta baliabideak sortuko eta gehituko dira, nahi duten pertsonak modua izan dezaten ahalik eta luzaroena egoteko beren etxeetan edo ingurunerik hurbilenetan”.

Zioak: Ingurune eta etxean bertako zerbitzu edo baliabideen urritasunak askotan ekartzen du pertsonak gogoz kontra utzi behar izatea beren etxea. Baliabide eta zerbitzu berriak taxutu beharra daukagu, pertsona horiek aukera izan dezaten beren etxeetan geratzeko.

17. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Desinstituzionalizazioa eta borondatezko neurriak sustatzeari buruzko 16. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“1 Desinstituzionalizazio-politikak sustatuko dira, desgaitasuna duten pertsonak beren etxeetan edo ingurunerik hurbilenetan gera daitezen bermatzeko zerbitzu edo baliabide berriak pixkanaka sortzeko plan berariazkoak prestatuz”.

Zioak: Desinstituzionalizazio-konpromisoa aurrera eramateko modua zehaztu beharra dago.

18. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, desgaitasuna dutenen osasuna babesteko eskubidea osasun publikoari dagokionez bermatzeari buruzko 27. artikulua 4. puntua aldatzekoa. Hauxe litzateke horren testua:

“Osasun-laguntzaren barnean sartzen dira etxeko errehabilitaziorako ekimen publikoak, eta sortzen den eskaerari erantzuteko adinako giza eta diru baliabide paratuko ditu”.

Zioak: Gure ustez, osasun-laguntza hori mamitu ahal izateko, beharrezkoa da bere konpromisoa gehiago zehaztea.

19. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, desgaitasuna dutenen osasuna babesteko eskubidea osasun publikoari dagokionez bermatzeari buruzko 27. artikuluari puntu berri bat, 2. bis, gehitzekoa. Hauxe litzateke horren testua:

“2. bis. Arreta egokia bermatze aldera, desgaitasunari buruzko prestakuntza-ikastaroak sustatuko dira osasungintzako langile guztientzat, eta jardute-protokoloak taxutuko dira errealitate desberdinei erantzuteko”.

Zioak: Komenigarria eta mesedegarria iruditzen zaigu osasungintzako langileei prestakuntza eskaini ahal izatea, desgaitasuna duten pertsonen bizi dituzten errealitate desberdinei buruzkoa, arreta hobetu ahal izate aldera. Bestalde, desgaitasun bakoitzaren zertzelada berezien arabera jardute-protokolo batzuk edukitzeak beharra dagoenean arreta hobetzea ekar lezake.

20. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

27. artikuluko 2. apartatuari paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Halaber, bereziki osasun-larrialdietako zerbitzuan bermatuko da badaudela sistemak zerbitzu hori irisgarriago gerta dakien desgaitasuna duten pertsona guztiei; batez ere, entzumen-degaitasuna eta mintzamen-problema dituzten pertsonen”.

Zioak: Osasun-sistema publikoko zerbitzu guztien irisgarritasuna bermatze aldera, berriaz aipatu beharrekoa da osasun-larrialdietako zerbitzua; izan ere, bertan irisgarritasuna bermatzen duen sistemarik ez egoteak ondorio ezin larriagoak ekar baititzake. Irisgarritasun-problema horiek batez ere pairatzen dituzte entzumen-degaitasuna eta mintzamen-problema dauzkaten pertsonen; hori dela-eta, komeni da legeak zertzelada hori aipagai har ditzan.

21. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, desgaitasuna dutenen osasuna babesteko eskubidea osasun publikoari dagokio-

nez bermatzeari buruzko 27. artikuluari puntu berri bat, zazpigarrena, gehitzekoa. Hauxe litzateke horren testua:

“7 Lan eginen da bermatzearen zerbitzu guztietan eta batik bat osasun-larrialdietako zerbitzuan badaudela irisgarritasuna areagotzeko sistemak desgaitasuna duten pertsona guztientzat, eta batez ere entzumen-degaitasuna eta mintzamen-problema dituzten pertsonentzat”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

22. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Koordinazioari buruzko 32. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Koordinazioa bermatuko da osasungintzako maila guztien artean, bermatze aldera informazio-trukea eta desgaitasuna duten pertsonen eman beharreko arretaren jarraitutasuna; eta, beharrezkoa denean, beste autonomia-erkidego batzuetarako igorpenak ere eginen dira, osasun arloko arauetan ezarritakoari jarraituz”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

23. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

32. artikulua —Koordinazioa— aldatzeko zuzenketa. Duen testuaren ordean beste hau izanen du:

“Koordinazioa bermatuko da osasungintzako maila guztien artean, bermatze aldera informazio-trukea eta desgaitasuna duten pertsonen eman beharreko arretaren jarraitutasuna, eta, beharrezkoa denean, beste autonomia-erkidego batzuetarako igorpenak ere eginen dira, osasun arloko arauetan ezarritakoari jarraituz”.

Zioak: Hasiera batean ezarritakoa hobetzen du.

24. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

32. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Koordinazioa bermatuko da osasungintzako maila guztien artean, bermatze aldera informazio-trukea eta desgaitasuna duten pertsonen emateko beharrezko jarraitutasuna; eta, beharrezkoa denean, beste autonomia-erkidego batzuetarako igorpenak ere egingen dira, osasun arloko arauetan ezarritakoari jarraituz”.

Zioak: Osasun-arretaren etengabetasuna eta arreta-maila desberdinen arteko koordinazioa hain dira oinarrikoak kalitatezko osasun-arreta baterako non ez baita nahikoa legeak hori sustatu egingen dela jaso dezala, baizik eta beharrezkoa baita hori bermatuta egotea.

25. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Gizarte-zerbitzuak eskuratzeari eta horien ezaugarri buruzko 33. artikuluariko puntu berri bat, zortzigarrena, gehitzeko zuzenketa.

“8 Erabiltzaileek lagun egiteko animaliekin egoteko modua edukiko dutela aurreikusiko da”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

26. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

33. artikuluariko 8. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“8. Erabiltzaileek lagun egiteko animaliekin egoteko modua edukiko dutela aurreikusiko da”.

Zioak: Arretaren gizatiartzeak eta pertsonarengan ardazturiko arretaren ereduak bilatu behar dute pertsonak beren nahiaren arabera ongizatea izan dezaten. Gainera, lagun egiteko animaliak askotan laguntza baliotsua izan ohi dira gizarte-zerbitzuen erabiltzaile diren desgaitasundun pertsonentzat; batez ere, egoitza-zerbitzuen erabiltzaile direnentzat.

27. ZUZENKETA.**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zainketei buruzko 34. artikuluko 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Horren testua honela geldituko litzateke:

“3 Zainketak erkidego-ingurunean eman daitezkeen sustatuko da, eta plan zuzendari baten bitartez garatuko da instituzionalizazioa ekiditeko beharrezkoak diren zerbitzu, baliabide eta sostenguen pixkanakako ezarpena”.

Zioak: Ardatz gisa pertsona hartzen duen eredu defendatzeak eta desinstituzionalizazioarekin konpromisoak beharrezko du eraldaketa-plan bat egotea eta zerbitzu eta baliabide berriak pixkanaka sortzen joatea.

28. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

37. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“37. bis artikulua. Nafarroako Espazio Soziosanitario Inklusiboa.

Lege hau onesten denetik urtebeteko epean Nafarroako Espazio Soziosanitario Inklusiboaren plan bat onetsiko da, bere ezarpenerako beharrezkoak dituen baliabideekin batera”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

29. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

39. artikuluariko lehenengo apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1 Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan eskumena duten departamentuek osasun- eta gizarte-informazioaren irisgarritasuna erraztu eta integratuko dute baliabide soziosanitarioen erabiltzaileentzat, Nafarroako osasun sistema publikoko historia sozial bateratuaren eta historia kliniko elektronikoen bitartez, baliabide horien erabiltzaile diren pertsonentzako arretaren jarraitutasunaren eta segurtasunaren mesedetan”.

Zioak: Osasun- eta gizarte-historien integrazioa eta zentro soziosanitario guztietako profesionalek irispidea izatea historia horietan gordetako

informaziora, funtsezkoa da arretaren kalitatea eta segurtasuna bermatzeko.

30. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Egoitza-zentroetako osasun-laguntzari buruzko 39. artikuluari puntu berri bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hauxe luke testua:

“3 Osasun arloan eta gizarte-zerbitzuetan eskudun diren departamentuek elkarlana eginen dute baliabide soziosanitarioen erabiltzaileei osasun- eta gizarte-informaziorako irispidea erraztu eta integratzeko. Era berean, bi departamentuek honako hau ziurtatuko dute: baliabidea non dagoen, bertako oinarrizko eskualdeko osasun sistema publikoarekin koordinatzeko plan funtzional bat eduki dezan baliabide horrek, bai oinarrizko osasun-laguntzaren mailarako, bai laguntza espezializaturako eta ospitale-laguntzarako, halatan bermatze aldera pertsoneri arreta egokia ematen zaiela”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

31. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikuluko 3. apartatuko hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Hezkuntza bereziko zentroetan edo ordezko unitateetan eginiko eskolatzea salbuespenezkoa izanen da, eta horretara joko da, bakar-bakarrik, ez denean komenigarritzat jotzen zentro arruntetako dibertsitate-arretarako neurrien barrenean erantzutea ikaslearen beharrezanezi, gurasoen edo legezko tutoreen iritziaren eta borondatearen ildotik; eta kasu horietan bermatu beharko da ikasle horiekiko baterako ekintzetarako neurriak planifikatzen direla”.

Zioak: Hezkuntza inklusiboaren aldeko hautua ezin da egin gurasoen eta legezko tutoreen nahia eta iritzia azpiratuz.

32. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Hezkuntza bereziko zentroetan edo ordezko unitateetan eginiko eskolatzea salbuespenezkoa izanen da, eta horretara joko da, bakar-bakarrik, ez denean komenigarritzat jotzen zentro arruntetako dibertsitate-arretarako neurrien barrenean erantzutea ikaslearen beharrezanezi, gurasoen edo legezko tutoreen iritziaren eta borondatearen ildotik betiere; eta kasu horietan bermatu beharko da ikasle horiekiko baterako ekintzetarako neurriak planifikatzen direla”.

Zioak: Hezkuntza inklusiboaren aldeko hautua ezin da egin gurasoen eta legezko tutoreen nahia eta iritzia azpiratuz.

33. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

41. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Hezkuntza arloaren eskumena duen departamentuak Aniztasunari Erantzuteko Plan bat presatu eta eguneratuta mantenduko du. Horren xedea hezkuntza inklusiboa izanen da, eta hezkuntza inklusiborako arreta- eta baliabide-zentro bat ere izanen du, Foru Komunitateko ikastetxeentzat erreferentziazkoa izanen dena”.

Zioak: Funtsezkoa da Aniztasunari Erantzuteko Plan bat egitea, eta plan horren barrenean beharrezkoa da planaren garapenerako erreferentziazkoa izanen den zentro batek esku hartzea. Zer esanik ez, bi horien printzipioa eta helburua hezkuntza inklusiboa izanen da.

34. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

42. artikuluko 7. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Arreta pertsonalizatua bermatuko zaie desgaitasunen bat izanik ospitaleetan nahiz beren etxetan emandako arreta iraunkorra behar duten ikasleei, ahal den heinean mantendurik adingabe bakoitzak ikastetxean dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, harik eta hura ikasgelara modu presentzialean itzultzeko beharrezkoak diren osasun-baldintzak betetzen diren arte”.

Zioak: Beren ikastetxera joatea denboraldi luze batez eragozten dien osasun-arreta bat beharrezkoa duten ikasleei ziurtatzeak arreta pertsonalizatua izanen dutela eta mantendu eginen

zaizkiela jadanik ikasgelan badituzten sostenguak eta baliabideak, lasaitasuna ematen die bai ikasle-ari bai haren familiari; baina, batez ere, ikasle horrek hezkuntzarako duen eskubidea betetzeko neurri beharrezkoa da.

35. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

42. artikulua zuzenketaren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“7 Arreta pertsonalizatua bermatuko zaie desgaitasunen bat izanik ospitaleetan nahiz beren etxeetan emandako arreta iraunkorra behar duten ikasleei, ahal den heinean mantendurik adingabe bakoitzak ikastetxean dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, harik eta hura ikasgelara modu presentzialean itzultzeko modua ematen duten baldintzak egon arte”.

Zioak: Bermatu beharrezkoa da desgaitasuna eta osasun-arazoak edukitzeagatik klasera denboraldi batez joan ezinean dauden ikasleek kalitatezko arreta izan dezatela.

36. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kirol eta aisialdi jardueretako irisgarritasun baldintzei buruzko 62. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Horren testua honela idatzita geratuko litzateke:

“1 Kirol edo aisialdi jardueretan eta antzeko ekitaldi publikoetan irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko dira, desgaitasuna duten pertsonak modua izan dezaten jarduera eta ekitaldi horietaz gozatzeko, haiek ulertzeko eta haietan parte hartzeko, guztientzako segurtasunez eta berdintasunez. Informazio guztia formatu irisgarrian emanen da, jardueraren arabera erregelamenduz ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

37. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

62. artikulua lehenengo apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1 Kirol edo aisialdi jardueretan eta antzeko ekitaldi publikoetan irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko dira, desgaitasuna duten pertsonak modua izan dezaten jarduera eta ekitaldi horietaz gozatzeko, haiek ulertzeko eta haietan parte hartzeko, guztientzako segurtasunez eta berdintasunez. Informazio guztia formatu irisgarri eta ulergarrietan emanen da, erregelamenduz jarduera-motaren arabera ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Testuaren hobekuntza teknikoa, informazioa egiazki guztientzat irisgarria izan dadin bermatzekoa.

38. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

73. artikuluko 7. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Diseinuari eta kokapenari dagokienez, irisgarriak izan beharko dute, halaber, paperontziek, edukiontziek, gutunontziek eta antzeko beste elementu batzuek, eta haien kokalekuak oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzeko modukoa beharko du izan”.

Zioak: Garrantzitsua da edukiontzia ere irisgarriak izatea desgaitasunen bat duten pertsonentzat, ezen, ezezkoan, haiek erabili ezinean gertatzen dira, nabaria denez.

39. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hiri-altzariei eta haurren jolastokiei buruzko 73. artikuluko 7. puntua aldatzeko zuzenketa. Horren testua honela geldituko litzateke:

“7 Diseinuari eta kokapenari dagokienez, irisgarriak izan beharko dute, halaber, paperontziek, edukiontziek, gutunontziek eta antzeko beste elementu batzuek, eta haien kokalekuak oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzeko modukoa beharko du izan”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

40. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

73. artikulua zuzenketaren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“7 Diseinuari eta kokalekuari dagokienez, irisgarriak izan beharko dute, halaber, hondakin-erakundeentzako, gutunontzietan eta antzeko beste elementu batzuetan, eta haien kokalekuak oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzeko modukoa beharko du izan”.

Zioak: Irisgarria izan behar duen beste hiri-elementu bat gehitzea.

41. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Hiri-altzariei eta haurren jolastokiei buruzko 73. artikuluko 9. puntua aldatzeko zuzenketa. Horren testua honela geldituko litzateke:

“9 Haurrentzako parkeak irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona ororentzako diseinuaren irizpideen arabera diseinatu eta kokatuko dira, eremu inklusiboak izan daitezten haur guztiak batera jostatzeko, haien gaitasunak direnak direla. Era berean, haurren jolastokiaren inguruneak eta hartarako nahiz jostaelementu guztietarako sarbideek ere irisgarriak izan beharko dute”.

Zioak: Cermin-ekin ados gaude esaten duenean parkeetara ez doazela desgaitasuna duten adingabeak bakarrik, baizik eta litekeena dela desgaitasuna izatea haiei lagun egiten dieten adindunek.

42. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

73. artikulua zuzenketaren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“9 Haurren jolastokiak irisgarritasun unibertsaleko eta ororentzako diseinuko irizpideen arabera diseinatu eta instalatuko dira, eremu inklusiboak izan daitezten haur guztiak batera jostatzeko. Era berean, haurren jolastokiaren inguruneak eta hartarako nahiz jostaelementu guztietarako sarbideek ere irisgarriak izan beharko dute”.

Zioak: Jolastoki horietara ez dira desgaitasuna duten umeak soilik joaten: haiei lagun eginez, joan

ohi dira desgaitasuna duten helduak ere. Testu honen bitartez, lortu nahi da irisgarritasuna guztientzako izan dadila.

43. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Komunikazioko irisgarritasun-baldintzei buruzko 93. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Horren testua honela idatzita geratuko litzateke:

“1 Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute komunikazioko oztopoak deuseztatuak izatea eta komunikazioaren irisgarritasuna ahalbidetzen duten mekanismoak eta alternatiba teknikoak nahiz pertsonen bitartezkoak ezartzea”.

Zioak: Cermin-ek eginiko ekarpenarekin bat gatoz.

44. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

93. artikulua zuzenketaren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1 Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute komunikazioko oztopoak deuseztatuak izatea eta komunikazioaren irisgarritasuna ahalbidetzen duten mekanismoak eta alternatiba teknikoak nahiz pertsonen bitartezkoak ezartzea”.

Zioak: Irisgarritasunari buruzko egungo legeriaren arabera (Irisgarritasunari buruzko Foru Legea), susta-lana egitea ez da nahikoa. Bermatu egin behar da.

45. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

94. artikulua zuzenketaren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“4 Hedabideek komunikazioaren irisgarritasuna hobetzen duten aurrerapenak eta sistema berriak txertatu beharko dituzte erabiltzen dituzten informazio eta komunikazio teknologietan”.

Zioak: Hamabi urteren ondoren, bada garaia irisgarritasun-elementuak berehala, eta ez pixkanaka, txertatzeko.

46. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

94. artikularen hirugarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“3 Ikus-entzunezko hedabideek autodeskribapen- eta azpigitulu-sistemak, bai eta zeinu hizkuntzaren interpretaziokoak ere, abiarazi beharko dituzte, beren programazioa irigarri egiteko”.

Zioak: Hamabi urteren ondoren, bada garaia irisgarritasun-elementuak berehala, eta ez pixkanaka, txertatzeko.

47. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

98. artikuluari 1. bis apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. bis. Desgaitasuna duten pertsonen arretan espezializatutako ofiziozko txanda bat sustatuko da, doako laguntza juridikoari buruzko estatu-araudian ezarritako baldintzetan, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, desgaitasunarekin zuzeneko zerikusia duten aferetako epaiketetan haien ordezkaritza eta defentsa ahalbidetzeko”.

Zioak: Desgaitasuna duten pertsonen ezaugarri bereziak dituzten justiziaren irisgarritasunari eta alor horretan egiten dituzten erreklamazioei dagokienez, komeni da gai honetan espezializaturiko ofiziozko txanda bat egotea.

48. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

104. artikuluari beste hiru letra gehitzea, honako testuarekin:

“k) Foru lege hau eta bera garatzen duten erregelamenduzko xedapenak bete daitezen sustatzea.

l) Foru lege honen betetzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.

m) Aztertu eta biltzea teknika arloko aurrerapenak nahiz foru lege honen eta bere erregelamenduen aplikazioaren ondorioz jasotako iradokizunak, bai eta legearen xedea betetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak har daitezen bultzatzea ere”.

Zioak: Egokiago deritzogu legea bere osotasunean garatu eta betetzearekin zerikusia duten eginkizunak Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluarenak izateari, eta ez Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseiluarenak, azken hori lerratuagoa baitago irisgarritasun-kontuetara.

49. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

105. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“3 Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Irisgarritasun unibertsalaren arloan baitezpadako urrats gisa irizpena ematea ematea foru lege aurreproiektuez eta erregelamenduzko xedepenen proiektuez.

b) Aztertzea eta jasotzea bai teknikaren aurrerapenak bai irisgarritasun unibertsalaren alorrean foru lege honek ezartzen duena aplikatzearen ondorioz jasotako iradokizunak.

c) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege honen aplikazio esparruetako ingurune guztietan irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren baldintzak betetzeari dagokionez, eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko organoei bidezkoa den zehapen espedientea abiaraz dezatela proposatzea.

d) Urtero txosten bat egitea foru lege honetan irisgarritasun unibertsala dela-eta jasotzen diren xedapenen betetze-mailari buruz. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari bidaliko zaio.

e) Bere antolamendu- eta funtzionamenduerregelamendua onestea eta aldatzea”.

Zioak: Egokiago deritzogu legea bere osotasunean garatu eta betetzearekin zerikusia duten eginkizunak Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluarenak izateari, eta ez Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseiluarenak, azken hori lerratuagoa baitago irisgarritasun-kontuetara.

50. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak 2019-2025 eperako desgaitasun-plana eguneratu eta aldatu beharko du, hura egokitzeko eta lege berriak ezarzen duena jasotzeko”.

Zioak: Lege berriak jasotzen duena eta konpromisoak mamitzeko, beharrezkoa da egungo desgaitasun-plana egokitzea.

51. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“Xedapen gehigarria. Sostengu fiskalaren alo-reko neurriak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak tributu-neurriak hartuko ditu desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat, haien desgaitasunaren ondoriozko gaitzesak samurtzen laguntzekoak”.

Zioak: Beharrezkoa da aurrerapausoak egitea, halako politika fiskalak ezarriaz non desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien arindua egiten baitzaizkie desgaitasun horrek ekartzen dizkien gaitzesak.

52. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Xedapen gehigarria. Zentro okupazionalen kalifikazioa

Zentro okupazionalak zentro itundu izanen dira, eta prestazio bermatu gisa aitortuko dira”.

Zioak: Zentro okupazionalak alternatiba aproposa ziren eta dira desgaitasuna duten pertsona askorentzat, ez badute modurik merkatu arruntean edo babestuan enpleguratzeko. Xede dute haien inklusioa eta garapen pertsonal eta soziala sustatzea. Hori bezain baliabide garrantzitsu batek ez luke graziazkoa izan behar, baizik eta baliabide gisa egokien zaien pertsona guztiei bermatutako baliabidea.

53. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“Onetsia izan ondoren, foru lege hau eskainiko da irakurketa errazeko formatuan, braille sisteman, zeinu-hizkuntzan, letra handituan eta/edo bere testua ororentzako irakurgarri egiten duen beste edozein formatutan”.

Zioak: Asmoa da foru administrazioak berak legea aplikatu dezala Nafarroan desgaituen eskubi-deak eraentzen dituen araua bera ere irisgarri egin.

54. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Foru administrazioak bermatuko du larrialdietako zentroak, babes-etxeak, egoitza-pisuak eta genero-indarkeriaren biktimen arretarako den beste edozein zentro eta zerbitzu erabat irisgarriak izatea, bai eraikinei dagokienez bai emandako arreta profesionalari dagokionez, desgaitasun bat duten emakume guztientzat, desgaitasuna edonolako dela ere”.

Zioak: Berariaz seinalatzea irisgarriak behar dutela izan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako baliabideek, halako moldez non ez diren gizarte-arretatik at geratuko, larrialdi-egoera batetik hasi eta haien onbideratze- eta erreku-perazio-prozesua burura iritsi arte.

55. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrenaren bigarren puntua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da:

«19. artikularen 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1 Osasun laguntza gizatasunez ematearen printzipioarekin bat, profesionalak eta osasun-zentroek ahalegindu beharko dute haien erabilzaileei

laguntza pertsonalizatua eta horien inguruabar pertsonalen arabera ematen, foru lege honetako eskubideak errespetatu eta betetzearen lagun-garri, erabiltzaile horiek babes berezia merezi duten kolektiboetakoak direnean, hala nola adinekoak, desgaitasuna dutenak, nahasmendu mentalkak dauzkatenak, bereziki mendekotasun egoeran daudenean, adingabeak, gaixotasun kronikoak dituztenak, gaixotasun arraroak dituztenak, gaixoterminalak, tratu txarren biktimak, droga-mendekotasuna dutenak, etorkinak, bazterketa soziala jasateko arriskuan daudenak, gutxiengo etnikoak kasu, eta, oro har, bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden talde zehatzak».

Zioak: Proposatzen da “gaixotasun mentalak dauzkatenak” espresioaren ordez “nahasmendu mentalak dauzkatenak” erabiltzea, lege proiektuak berak hirugarren xedapen gehigarrian dioenaren ildotik.

56. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan laugarrena denaren lehen puntua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bat. 4. artikularen 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

«1. Europar Batasuneko kide diren estatuetako nazionalitatea izan eta Nafarroako edozein udal-tan eroldaturik dauden herritar guztiak, bai eta egoitza Nafarroan daukaten atzerritarrak ere, izanen dira foru lege honetan ezarrita dagoen gizarte zerbitzuen sistemaz baliatzeko eskubidearen titularrak; horrek ez ditu galaraziko beste autonomia erkidego batzuekin elkarrekotasunaren printzipioaren ildotik egindako aldebiko hitzarmenetan ezar daitezkeen salbuespenak, ez eta gizarte-zerbitzuen alorrean eskudun den departamentuak egin ditzakeen beste salbuespen batzuk ere, desgaitasun eta/edo mendekotasun aitortua eta Nafarroan familia errotua daukaten pertsonen ohiz kanpoko zirkunstantzien ondoriozkoak».

Zioak: Nahiz eta erroldatua egotea gizarte-zerbitzuetan sarbidea izateko baldintza bat den, kontuan hartu behar da mendekotasun-egoeraren edo desgaitasun-graduaren aitortpena bakarrik dela Espainia osorako, eta badaude ezohiko zirkunstantziak zeinetan, erroldatze hori egon gabe ere, kasuko pertsonak errotze hori baitauka Nafarroan bere familiarren bitartez, eta kasu hori ezin da egon administrazioen artean hitzarmen bat noiz sinatuko den zain. Horrela, asmoa da Eskubide Sozialerako Departamentuari

zirkunstantzia horietan urratsak egiteko modua ematea.

57. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapena. Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea aldatzea.

Bat. 10. artikuluko c) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

“c) Gizarte Segurantzaren prestazioak eta/edo % 65 edo gehiagoko desgaitasuna duten seme-alaben aurreikuspen sozialeko beste sistema batzuek ematen dituzten antzeko laguntzak».

Zioak: Errenta bermatuari buruzko foru legedia doitzea bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko estatu-legedira.

58. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“1 Foru lege hau onesten denetik sei hilabete-ko epean, garatuta egonen dira honako artikulua eta apartatuei dagozkien erregelamenduak:

- a) 56.1 artikulua.
- b) 56.2 artikulua.
- c) 62.1 artikulua.
- d) 62.2 artikulua.
- e) 74. artikulua.
- f) 76.1 artikulua.
- g) 76.2 artikulua.
- h) 80. artikulua.
- i) 90.2 artikulua.
- j) 91. artikulua.

2. Foru lege hau onesten denetik urtebeteko epean, garatuta egonen dira honako artikulua eta apartatuei dagozkien erregelamenduak:

- a) 83.2 artikulua.
- b) 83.4 artikulua.
- c) 86. artikulua.
- d) 95.5 artikulua.
- e) 95.6 artikulua.
- f) 97.2 artikulua.
- g) 97.6 artikulua”.

Zioak: Asmoa da legeak aurreikusten duen erregelamenduzko garapena egiteko epeak ezartzea, zeren eta garapen hori gabe arauaren eraginkortasuna dezente murriztuko bailitzateke.

59. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Azken xedapena. Desgaitasun-alorreko gizarte-erakundeak foru lege honen helburuen lorpenari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate laguntzailetzat ofizialki jotzea.

Foru dekretu bidez arautuko da, sei hilabeteko epean, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien nafar gizarte-erakundeak foru lege honen helburuen lorpenari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate laguntzaile direla ofizialki deklaratzeko prozedura, eta laguntzailetasun horri dagozkion eskubide eta betebeharrak ezarriko dira”.

Zioak: Foru lege honen erabateko exekuzioa lortze aldera desgaitasun-alorreko entitateen laguntza edukitzea funtsezko faktorea da exekuzio hori erdiesteko.

60. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

“Azken xedapena. Desgaitasun-alorreko gizarte-erakundeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate laguntzailetzat jotzea legearen helburuak erdiestearen ondorioetarako.

Nafarroako Gobernuaren dekretu bidez arautuko da, sei hilabeteko epean, desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien familien nafar gizarte-erakundeak foru lege honen helburuak erdiestearen ondorioetarako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate laguntzaile direla ofizialki deklaratzeko prozedura, eta laguntzailetasun horri dagozkion eskubide eta betebeharrak ezarriko dira”.

Zioak: Nafarroako Gobernuaren eta desgaitasun-arloko entitateen arteko elkarlanerako esparru egonkor bat ezartzea.

61. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hitzaurreko II. apartatuko laugarren eta bosgarren paragrafoak aldatzeko zuzenketa.

Hitzaurreko II. apartatuko laugarren eta bosgarren paragrafoak aldatzen dira. Hona testu berria:

“Foru Komunitatean, irisgarritasunaren arloan, indarrean dagoen legediak dagoeneko bete du irisgarritasun unibertsalaren zeharkakotasuna bermatzeko helburua. Horretarako, koordinaturik jardun dute Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek eta pertsonen bizi-kalitatea efizientziaz hobetzeko esku hartzen duten botere publiko guztiek. Hori horrela izanik, orain bidezkoa da foru lege bat garatzea, xedatzen honako hauen sustapena izanen duena: pertsonen autonomia, inklusioa eta gizarteko arlo guztietan parte hartzea (bereziki hauetan: osasuna, eskubide eta zerbitzu sozialak, hezkuntza, enplegua eta lana, etxebizitzia, kultura, turismoa, kirola eta aisialdiko jarduerak). Hori guztia arau berriekin bat eta kontuan hartuta desgaitasunak nahiz bestelako mugak dituzten pertsonen kopurua gero eta handiagoa izanen dela populazioa zahartzearen ondorioz; izan ere, kalkulatu da ezen seitik batek 65 urte baino gehiago izanen dituela 2050ean munduan. Nafarroari dagokionez, Errealitate Sozialaren Behatokiaren arabera, mendekotasun-tasa %65,8koa izanen da 2035ean.

Pertsonen autonomia eta gizartean duten parte-hartzea sustatzeko oinarri-oinarrizkoa da erabakiak libreki hartu ahal izatea, eta, horretarako, funtsezkoa da gaitasun juridikoa baldintza berberetan aitortzea, eta gaitasun juridiko hori egikaritzeko laguntzarik behar izanez gero, eskubideak mugatu beharrean, pertsona eskubidez hornitzeko sistema bat eskainiko da; funtsezkoa da, halaber, informazioa eta baimena formatu egokietan ematea, norberaren inguruabarrak ain-

tzat hartuta eta diseinu unibertsalaren edo oren-tzako diseinuaren erregelak beteta, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten. Ildo horretatik, honako hauek arautzen dira foru lege honen bidez: bate-tik, gaitasun juridikoa egikaritzeko babes eta laguntza; bestetik, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, kultura eta aisialdiko jarduerak inklusiboak izatearen eta desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokituak egotearen inguruko oinarriko printzipioak; eta, azkenik, komunikazioaren eta informazioaren iris-garritasuna, bereziki ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuena, bat etorri nazioarteko, Europako eta estatuko araudi berrienarekin”.

Zioak: Etxebizitza ere kontuan har dadila ez soilik irisgarritasunaren aldetik, baizik eta desgaitasuna duten pertsonen parte hartzeko dituzten arlo aipagarrienetako bat izatearen aldetik ere.

62. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hitzurreko IV. apartatuko 14. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“IV. tituluan hezkuntza inklusiboa definitzen eta garatzen da, abiapuntutzat hartuta horren oztopoak gizarteak berak jarritakoak izan ohi direla askotan. Izan ere, baliteke gizarteak hezkuntzari buruzko ikuspegi baldintzatua edukitzea, halako moldez non joko bailitzateke hezkuntzaren helburu nagusia eta ia bakarra dela trebetasunak eskuratzea lehia handiagokoak eta indibidualistagoak diren lan-merkatu eta gizarte-bizitza baterako, kontuan hartu gabe hezkuntzak helburu izan behar duela prestakuntza ematea, lanabes emozional eta sozialak direnak ere erabiliz aurre egin ahal izateko pertsonen suertatzen zaizkien zirkunstantzia desberdinei, jende guztiak jarrera kritiko eta solidarioagoko gizarte batean parte har dezan, non dibertsitatea ondasun eta aberastasun gisa ulertuko baita gizarte osoarentzat”.

Zioak: Testua hobetzea, halatan desgaitasuna ez dadin problematzat jo, eta hezkuntzari buruz igogailu sozial eta integratzailea izatearen ikuspegi eskaintzeko.

63. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hitzurreko IV. apartatuaren 14. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“IV. tituluan hezkuntza inklusiboa definitzen eta garatzen da, abiapuntutzat hartuta horren oztopoak gizarteak berak jarritakoak izaten direla bazuetan. Izan ere, baliteke gizarteak hezkuntzari buruzko ikuspegi baldintzatua edukitzea, halako moldez non joko bailitzateke hezkuntzaren helburu nagusia dela trebetasunak eskuratzea lehia handiagokoak eta indibidualistagoak diren lan-merkatu eta gizarte-bizitza baterako, izan beharrean prestakuntza ematea, lanabes emozional eta sozialei ere heldurik, jende guztiak jarrera kritiko eta solidarioagoko gizarte batean parte hartze aldera, non dibertsitatea ondasun eta aberastasun gisa joko baita gizarte osoarentzat eta herritartasuna horren baitan baliatze aldera”.

Zioak: Ados gaude Cermin-ekin, desgaitasuna ez dela arazotzat jo behar.

64. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Hitzurreko IV. apartatuaren 14. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“IV. tituluan hezkuntza inklusiboa definitzen eta garatzen da, abiapuntutzat hartuta horren oztopoak gizarteak berak jarritakoak direla. Izan ere, baliteke gizarteak hezkuntzari buruzko ikuspegi baldintzatua edukitzea, halako moldez non joko bailitzateke hezkuntzaren helburu nagusia dela trebetasunak eskuratzea lehia handiagokoak eta indibidualistagoak diren lan-merkatu eta gizarte-bizitza baterako, izan beharrean prestakuntza ematea edozein arazori aurre egiteko, lanabes emozional eta sozialei ere heldurik, jende guztiak jarrera kritiko eta solidarioagoko gizarte batean parte hartze aldera, non dibertsitatea ondasun eta aberastasun gisa joko baita gizarte osoarentzat eta herritartasuna horren baitan baliatzeko”.

Zioak: Oztopoak beti izaten dira gizarteak jarritakoak.

